


ARGAZKI ETA MARRAZKI LEHIAKETA

Oinarriak:

- **Gaia:** Aduna festa giroan
- **Estiloa:** argazkia edo marrazkia
- **Gutxieneko neurria:** DIN A4
- **Agertu beharreko testua:**
 - Adunako Jaiak 2015
 - Abuztuak 8, 9, 13, 14, 15 eta 16




Lehiakide bakoitzak gehienez 3 lan aurkez ditzake. Argazki edo marrazkiak gutunazal itxian aurkeztu beharko dira Udaletxean, izen-abizenak, adina eta telefonoa gutunazalean idatziz edo adunakojaiak@gmail.com helbidera bidaliz.

Mailak:

- 5 urtetik behera
- 6 urtetik 12 urtera
- 13 urtetik gorakoak

Aurkezteko epea: 2015eko uztailaren 17a

Lan sarituak herriko jaietako egitaraua egiteko erabiliko dira





ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALAREN UDAKO ORDUTEGIA

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra Udalaren ordutegia honako hau izango da:

9:00 – 15:00

Bestalde herriko jaietan Udaletxea itxita egongo da. Hau da, abuztuaren 13 eta 14 (osteguna eta ostirala)

Uda ondo pasa!

OROIMEN HISTORIKOA - HITZALDIA

Oroimen historikoaren auzolandegien barruan hitzaldi ezberdinak egongo dira egun haueetan Asteasun, Adunan eta Zizurkilen. Adunakoa hurrengo asteko ostegunean izango da.

Hitzaldia: EZKABAKO KARTZELA ETA BERTAN PRESOEI LAGUNTZEKO EMAKUNMEEK SORTUTAKO LAGUNTZA SAREA

Hizlariak: Gotzon Bergerandi eta Amaia Kowasch

Eguna: Uztailak 16, osteguna
Tokia: Adunako Kultur aretoa
Ordua: 19:00

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

PLENOA

Asteazken honetan, **uztailak 8, arratsaldeko 19:30tan** osoko bilkura izango da Adunako Udaletxeko pleno aretoan.

Gaiak honako hauek izango dira:

1.- AURREKO UDALBATZAKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

2.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

3.- ADUNAKO BULANDEGI, HAIZPEA ETA URTAKI INDUSTRIA GUNEETAKO ARGITERI PUBLIKOAN HOBEKUNTZARAKO ARGIZATZE, ARGIZTAPEN AZKARRAREN SISTEMA INTEGRAL BAT HORNITU, MUNTATU ETA MARTXAN JARTZEKO ZERBITZUAK GAUZATZEKO PROIEKTUAREN KONTRATAZIOAREN ESLEIPENA.

4.- ADUNAKO UDALAREN ADUNAMENDI IZENeko 2.002.1 ZENBAKI HERRI ONURAKO MENDIAN ERABATEKO MOZKETAZ EGUR USTIAKETA EGITEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.

5.- ESTALIGABEKO KIROLDEGIAREN PROIEKTUko 5. ZERTIFIKAZIOAREN AZTERKETA ETA ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

6.- ADUNAKO 1. ETA 3. SEKTOREKO IPARRALDEKO ESPALOIAREN 4. ZERTIFIKAZIOAREN AZTERKETA ETA ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

7.- 2015 EKITALDIKO AURREKONTUAREN 1. KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA.

8.- ADUNAKO UDALARI EGINDAKO ZENBAIT DIRU LAGUNTZA ESKAEREN AZTERKETA ETA ONARPENA.

9.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA ETA ONARPENA.

10.- ALKATETZAREN INFORMAZIOA.

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net